

ZARAUZKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL-ORDENANTZA

2023. URTEA



Babeslea:



ZARAUZKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

UDAL-ORDENANTZA

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA:.....	4
ATARIKO TITULUA	7
I.TITULUA: Eginkizunak, antolaketa eta baliabideak	10
I. KAPITULUA: Marko orokorra	10
II. KAPITULUA: Parekidetasun Departamentua	11
III. KAPITULUA: Udal berdintasun-politika bultzatzeko koordinazio politiko-teknikoa.....	12
IV. KAPITULUA: Berdintasuna bultzatzeko interlokuzio sozialerako espazioak	13
II. TITULUA: Udal jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak	14
I. KAPITULUA: Berdintasunerako Plana.....	14
II. KAPITULUA: Udal ikerketa eta estatistikak	16
III. KAPITULUA: Udal-administrazioaren zerbitzura diharduten langileen kudeaketa	16
IV. KAPITULUA: Ordezkaritza edo eraketa orekatua.....	21
V. KAPITULUA: Barne- eta kanpo-informazioa eta komunikazioaren ekoizpena eta kudeaketa	22
VI. KAPITULUA: Udaleko araudian eta jardueran generoak duen eragina	23
VII. KAPITULUA: Genero-ikuspegidun aurrekontuak.....	25
VIII. KAPITULUA: Lehiaketa eta kontratu publikoak.....	25
IX. KAPITULUA: Dirulaguntzak ematea	28
X. KAPITULUA: Espazio publikoaren erabilera.....	29

III. TITULUA: Udal politika, eskumen eta esku-hartze eremuetan berdintasuna sustatzea	31
I. KAPITULUA: Giro ludikoa, osasuntsua eta sortzailea, berdintasunean	31
II. KAPITULUA: Hezkidetza eta sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna errespetatzea	33
III. KAPITULUA: Gizarte-zerbitzuak, zainketak eta ardura partekatua	35
IV. KAPITULUA: Tokiko garapen zuzena eta parte-hartze aktiboa	36
V. KAPITULUA: Guzti-guztiok bizitzeko moduko ingurunea, iraunkorra eta segurua	36
IV. TITULUA: Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak	41
I. KAPITULUA: Xedapen orokorra	41
II. KAPITULUA: Prebentzioa	42
III. KAPITULUA: Detekzioa, arreta, koordinazioa eta erreparazioa	43
IV. KAPITULUA: Salaketa soziala	44
XEDAPEN GEHIGARRIA	45
XEDAPEN IRAGANKORRA	45
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	45
AZKEN XEDAPENA	45

ZIOEN AZALPENA:

I.

Emakume eta gizonen berdintasuna bermatzea administrazio publikoen zeregin nagusietako bat da marko arautzaile ezberdinen arabera. Zarauzko Udalak mandatu horiei jarraiki, konpromiso politikoa erakutsi du parekidetasunaren alde, besteak beste, 2004az geroztik berdintasunerako Udal Planak onartuz, Parekidetasun Departamentu bat osatuz, Emakumeen* Etxea ekipamendua sortuz eta 2017an Emakume eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantza onartuz.

Azken urteotan, ordea, marko arautzailea asko garatu da. Horregatik, udal-ordenantza aldaketa horietara egokitzeko beharra dago.

Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aipatzen diren printzipio hauen arabera egin dira aldaketak: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia eta legeei eta gaur egungo errealitate sozialari erantzuten diete.

Premia printzipioaren ikuspegitik, Berdintasunari buruzko Ordenantzaren aldaketa honek interes orokorrari erantzuten dio argi eta garbi, 2017an ordenantza onartu zenetik bere edukiak egokitu eta eguneratu egin baitira esparru arautzaileak izan dituen aldaketetara.

Efikazia- eta efizientzia-printzipioei dagokienez, artikuluetan jasotako agindu eta prozedurak behar bezala egokitu dira horiek betetzeko ezinbestekoak diren baliabideetara. Era berean, neurri guztiek ordenantzaren funtsezko helburuak betetzeari erantzuten diote, hau da, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea eta genero-ikuspegia txertatzea esku-hartzeko prozedura, eremu eta arlo guztietan.

Proportzionaltasunari eta segurtasun juridikoari dagokienez, egindako aldaketek zorrotz erantzuten diete Ordenantza arautzen duten legeen eguneratzei (1. artikuluan daude zerrendatuta).

Azkenik, Ordenantza onartzeko prozesuak gardentasun printzipioa errespetatu egiten du, ordenantzaren aginduek eragiten dieten pertsona guztiek hartu dezaketelako parte ordenantza lantzen.

II.

Beriki garatu diren emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko arauen artean honakoak dira nagusi. Batetik, Nazio Batuen Erakundearen Giza Garapen Jasangarrirako 2030 agenda, zeinak emakumeen eta neskatilen ahalduntzea ezartzen duen genero berdintasuna sustatzeko estrategia nagusizat. Bestetik, 2014tik Espainiar Estatuan indarrean den Europar Kontseiluak onartutako Istanbulgo Hitzarmena, Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzkoa. Bi marko nagusi hauetatik eratorri dira 2017an adostutako Indarkeria matxistaren aurkako Estatu Ituna eta Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan emandako moldaketak.

Euskadi mailan, martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea aipatutako marko arautzailera egokitu du (hemendik aurrera EGL) eta prozedura administratiboan genero ikuspegia txertatzeko berdintasun klausulak gehiago zehaztu ditu.

Aipatutako aldaketa guztiak kontuan hartuta egin dira udal-ordenantza honen egokitzapenak.

III.

2017ko udal-ordenantzatik gaur onartzen den testu arautzailera eman diren aldaketa nagusiak EGLra egokitzeko egindako aldaketak izan dira eta 67 artikuluren bidez jaso dira.

Garrantzitsuena izan da udal-ordenantzaren artikulatua EGLaren logikara egokitzea eta lau titulutan banatzea.

Atariko tituluan, udal-ordenantzaren helburua, aplikazio eremua eta berdintasun politikak gidatu behar dituzten printzipio orokorrak jaso dira. Hauen artean aldaketa nagusia da EGLak bere 3. artikuluan txertatu dituen 7 printzipio berriak, tartean, *interseksionalitatea*, *emakumeen ahalduntzea eta gizonen inplikazioa*. Horrez gain, *emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin amaitzea*, *sexu eta genero identitateak eta orientazio sexuala askatasunez garatzea eta hizkuntza eskubideak, hala nola, euskararen sustapena* ere berdintasun politiken bidez sustatu beharreko printzipioak bihurtu dira. Azkenik, aipatzekoak dira ere beste printzipio berri hauek; *Berdintasun politikan parte hartzea sustatzea*, *kontu ematea eta gardentasuna*.

Lehen tituluan, udalak berdintasun politikak sustatzeko dauzkan kompetentziak eta zereginak zerrendatzen dira. Horrez gain, zeregin horiek gauzatzeko udalak sustatu beharreko estrategia eta egiturak zehazten dira.

Bigarren tituluan, udal jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak ezartzen dira. Bertan jasotzen diren aldaketa nagusiak dira EGBLan jasotzen diren betebeharrak udaleko giza baliabideen kudeaketan genero ikuspegia txertatzeari buruzkoak, eta kontratazio, dirulaguntza eta espazioen lagapenetan emakume eta gizonen berdintasunari buruzko klausulak ezartzearen ingurukoak.

Hirugarren tituluan, udal politiken esku-hartze eremuetan, arlo ezberdinetatik sustatu beharreko neurriak ezartzen dira. Titulu honetako aldaketa nagusiak izan dira 2017ko udal ordenantzan sartu ez ziren bi arlo berri txertatzea; Turismoa eta Gazteria. Horrez gain, Mugikortasuna eta garraio publikoa atalari ikuspegi zabalagoa emateko asmoz, hiri-mugikortasuna izendatu da.

Azken atala laugarren titulua da. Bertan, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko lege aldaketetara moldatu nahi izan da ordenantza. Bi aldaketa izan dira nagusiki. Batetik, politika hauen subjektua zabaldu da; *emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne*. Horrez gain, indarkeria pairatu duten emakumeen ingurunea ere kontuan hartzen da orain, emakumeak babesteagatik edo beren zaintzapean dauden haur edo menpekoak barne hartuz. Bestetik, *detekzio, arreta eta koordinazioari*, erreparazioa gehitu zaio. Atal honetan, gainera, EGBLak dioen moduan, Zarautzen ere Jabetze eskolak eta Emakumeen Etxeak egiten duten funtzio soziala aitortzen da.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Xedea eta arau-esparrua.

1. Ordenantza honen xedea da nazioarteko, Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko arauen esparruan, emakume eta gizonen berdintasunak udalerrietan izan beharreko araubide juridikoa ezartzea. Abiapuntu gisa, emakumeen aurkako diskriminazioa fenomeno unibertsala, menderatzailea, egiturazkoa eta sistemikoa dela aitortzen du.

2. Ordenantza honen bidez lortu nahi dena da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako esparruan egin beharreko jarduerak arautzen dituzten printzipio orokorrak zehaztea, eta bizitzaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu nahiz bermatzeko neurri-sorta bat sustatzea, bereziki emakumeen autonomia sustatzeko, eta emakumeen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko, emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatuz eta emakumeen eskubideak benetan betetzeko orduan ageri diren oztopoak kenduz.

3. Aurreko atalean ezarritakoarekin bat etorritz, Ordenantzak indarrean dauden arauak beteko ditu. Berebiziko garrantzia dute honako hauek, arautu beharreko arloa dela eta:

a) Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (1979ko abenduaren 18an onartua eta espainiar Estatuak 1983ko abenduaren 16an berretsia).

b) Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzko hitzarmena (Istanbul, 2011ko maiatzaren 11ean Europar Kontseiluak onartua eta 2014ko abuztuaren 11ean espainiar Estatuan indarrean sartua).

c) Toki-Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna, 2006koa.

d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

e) Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

f) Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.

g) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen era gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabe bizitzeari buruzkoa (aurrerantzean EGBL).

h) 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.

2. artikulua. Helburuak.

1. Udalerrian emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiestea, eta genero-sistemak sortutako diskriminazio-era guztiak desagerraraztea.
2. Emakumeen banakako eta taldekako jabekuntza sustatzea eta beren jarrera sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea.
3. Zarauzko herrian identitate eta sexu-aukeren aniztasunaren aitortza ahalbideratzea.
4. Horretarako, Udalak, berdintasunarekin eta aniztasunarekin duen konpromisoa ezagutzera emateaz gain, gainerako erakunde publiko eta politikoen laguntza lortzen ahaleginduko da, baita erakunde pribatuena eta gizarte zibilarena ere.

3. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Ordenantza hau Zarauzko Udalaren administrazioan ezarriko da, eta haren mendeko edo hari lotutako organismo eta erakunde publikoetan ere bai.
2. Erakunde pribatuei ere ezarriko zaie, Ordenantzak berak ezartzen dituen kasuetan eta, bereziki, Zarauzko Udalarekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen dituzten erakunde pribatuei, edo Zarauzko Udalak emandako diru-laguntzak jasotzen dituztenei.

4. artikulua. Oinarrizko printzipioa eta printzipio instrumentalak.

1. Ordenantza honen funtsezko arau-oinarriak Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikuluek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 9.2d) artikuluek dira; horien arabera, botere publikoek norbanakoaren eta norbanakakoek osatzen dituzten taldeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko baldintzak sustatu behar dituzte. Baita 4/2005 Berdintasunerako legeko 4.3 eta 19.2 artikuluetan udalei ematen zaizkien berdintasunerako udal-ordenantzak egiteko eskumenak ere.
2. Aurreko atalean aipatutako berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko, 4/2005 Legearen 3. artikuluen arabera gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko botere publiko guztien lana zuzendu eta bideratu behar duten printzipioak baliatuko ditu udal-botereak. EGBLn ezarritako 15 printzipioetatik, nazioarteko araudian gehien errepikatzen diren hiru printzipioak jaso dira artikuluan honetan.

a) Genero-ikuspegiaren integrazioa.

Zarauzko udalak genero-ikuspegia txertatu behar du politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra. Udal-ordenantza honen ondorioetarako, hau da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan diferentek, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, exekutatze eta ebaluatze fase guztietan.

b) Ekintza positiboa.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, Zarauzko Udalak neurriak hartu behar ditu, espezifikoak eta aldi baterako, bizitzaren eremu guztietan sexuan oinarritutako egitatezko desberdinkeriak ezabatzeko edo murrizteko.

c) Emakumeen ahalduntzea.

Zarauzko Udalak baldintzak ezarri behar ditu eta behar diren egokitzapenak egin behar ditu emakumeak ahalduntzen laguntzeko, emakumeen dibertsitatea kontuan hartuta. Udal-ordenantza honen ondorioetarako, emakumeen ahalduntzetzat jotzen da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaz jabetzeko egiten duten prozesua, banaka zein modu kolektiboan, bai eta beren bizitzei buruzko erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren zenbait alderditan generoan oinarritutako desberdinkeria eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten eskumena, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere.

3. Aurreko atalean aipatutako printzipioen interpretazioa 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotzen den haien definizioarekin bat etorri egingo da.

I.TITULUA: EGINKIZUNAK, ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK

I. KAPITULUA: Marko orokorra

5. artikulua. Xedapen orokorra

1. Zarauzko udalak emakume eta gizonen berdintasun politikak sustatzeko estrategia nagusi gisa estrategia duala erabiliko du, hau da, genero-zeharlerrotasunaren estrategia batetik, eta bestetik, ekintza positibo neurriak sustatzearena.
2. Genero-zeharlerrotasuna garatzeko, udaleko departamentu guztiek eta haren mendeko edo hari lotutako organismo eta erakunde publiko guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko dute. Horretarako, bakoitzak bere jarduera esparruan, neurri zehatzak programatu eta ezarriko ditu, neurri horien jarraipena egingo du, eta norberaren alorreko politiketan generoaren ikuspegia integratuko dute.
3. Parekidetasun Departamentuaren funtzioa izango da Udaleko berdintasun politikak bultzatu, koordinatu, bide- laguntza eman, jarraipena egin eta ebaluatzea. Halaber, 10 eta 11. artikuluetan jasotako gainerako eginbeharrak ere izango ditu.

6. artikulua. Udalaren eginkizunak

Zarauzko Udalaren eginkizunak emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez 4/2005 Legean, 7. artikuluan aurreikusitakoak izango dira.

7. artikulua. Berdintasun politiketarako egitura eta espazioak

1. Arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eta Zarauzko Udalean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak genero-zeharkakotasuna estrategiaren bidez bultzatu daitezzen, antolaketa hau egongo da:
 - a) Emakumeen eta Gizonen Parekidetasun Departamentua.
 - b) Udal berdintasun-politikak bultzatzeko koordinazio politiko teknikoa.
 - c) Berdintasuna bultzatzeko interlokuzio sozialerako espazioak.
2. Aipatutako egitura eta espazioak 8. artikulutik 16. artikulura garatzen dira.

II. KAPITULUA: Parekidetasun Departamentua

8. artikulua. Parekidetasun Departamentua.

Parekidetasun Departamentua zeharkako organoa da, eta jarduteko bere eremu eskusiboa emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal mailako politikak bermatzea izango da. Zerbitzu egonkorra, etengabea eta irauteko asmoarekin sortutakoa da.

9. artikulua. Adskripzioa, langile espezializatuak eta kolaborazioa.

1. Parekidetasun Departamentua Alkatetzaren menpekoa izango da, legeari jarraikiz egin ditzakeen eskuordetzeak galarazi gabe.

2. Parekidetasun Departamentuko teknikariek berdintasun-arloko prestakuntza berezitua izan beharko dute.

a) Berdintasun-arloko prestakuntza berezitua egiaztatu egin beharko da, unibertsitateak, herri-administrazio batek nahiz organo ofizial batek emandako egiaztagiriz frogatuz emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko edo emakumeen aurkako indarkeria matxistan esku-hartzeari buruzko gutxienez 150 orduko prestakuntza hartu izana, edota frogatuz gutxienez bi urteko lan-esperientzia izatea emakumeen eta gizonen berdintasun-eremuan.

b) Parekidetasun teknikari lanpostu horri emango zaion maila hierarkikoa behar bezainbatekoa izango da langile horrek modua izan dezan interlokuzioa egiteko Udaleko arloetako arduradunekin emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, jarraipena egin, koordinatu eta ebaluatzeko.

3. Udaleko teknikari eta hautetsi guztiek berdintasun politiketan eragiteko konpromisoa hartuko dute eta elkarlanean arituko dira Zarauzko Parekidetasun Departamentuarekin.

10. artikulua. Eginkizun orokorrak.

Parekidetasun Departamentuak EGBLko 10. artikuluan ezartzen diren eginkizunak garatu beharko ditu. Azpimarragarrienak hauek:

1. Udal barruko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, programatu eta aholkularitza emateko ardura izango du, bereziki Ordenantza honetan ezarritako prozedurak eta eginkizunak betetzen laguntzeko.

2. Indarkeria matxistaren kontrako politiken diseinuan parte hartzea eta politika hauen

koordinazioa bultzatzea gizarte-politikaren arlokoarekin zein gaiarekin zerikusia duten eskumenak eratzikita dituen sailarekin edo zerbitzuarekin. Horrez gain, zerbitzu eta lan ildo horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

3. Zarauzko emakumeen ahalduentze indibidual eta kolektiboa sustatzeko programak eta espazioak diseinatu, koordinatu eta garatzea. Arreta berezia emango zaie egoera zaurgarrien dauden emakumeei.
4. Zarauzko berdintasunaren aldeko eragileekin interlokuzioa sustatzea, udal politiketan berdintasunaren ikuspegia zabaltzeko eta kontrastatzeko.

11. artikulua. Baliabideak.

Zarauzko Udal Gobernuak ordenantza honetan agindutako funtzioak garatzeko beharrezko giza-baliabideak eta baliabide ekonomikoak, materialak eta administratiboak emango dizkio Parekidetasun Departamentuari.

III. KAPITULUA: Udal berdintasun-politika bultzatzeko koordinazio politiko-teknikoa.

12. artikulua. Udal barruko berdintasuna bultzatzeko barne-koordinazioa.

1. Emakume eta gizonen berdintasunerako udal-politika eraginkorra izan dadin, Udaleko Departamentuek modu koordinatuan lan egingo dute dagokion koordinazio-organismoaren bidez. Parekidetasun Departamenturako arduradun politikoei koordinazio hori bultzatu, kudeatu eta ikuskatzeko ardura izango dute, horretarako Zarauzko Udalak duen egitura zein antolaketa administratiboa eta politikoa kontuan harturik.

2. Aurreko epigrafean ezarritakoaren kaltetan izan gabe, behar diren batzorde edo lantalde sektorial, tekniko edo politikoak eratuko dira, genero-ikuspegia Zarauzko Udalaren arloetan garatzen diren politika publikoetan sar dadin.

13. artikulua. Erakundeen arteko parte-hartzea.

1. Berdintasunerako udal-politika bultzatzean, gainerako udalerriekin eta gainerako erakunde publiko zein pribatuekin koordinatuta egoteko, Zarauzko Udalak dauden sareetan partaide izango da.

2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistan udalerrian egiten den esku-hartzea hobetzeko, instituzioen arteko III. akordioari jarraiki, Zarauzko Indarkeria matxistaren esku-hartzea

hobetzeko protokolo-mahaia sustatu eta koordinatuko du Parekidetasunerako Departamentuak.

IV. KAPITULUA: Berdintasuna bultzatzeko interlokuzio sozialerako espazioak

14. artikulua. Berdintasunerako Kontseilua.

1. Zarauzko Udalak Zarauzko Berdintasunerako Kontseilua indartuko du, eta bertan emakume anitzen parte hartzea erraztu eta ahalbideratuko du. Kontseiluaren bidez emakumeei Zarauzko emakume eta gizonen berdintasunerako politiketan parte hartzeko aukera eta espazioa eskainiko zaie, bai eta parte hartze soziopolitiko ere, esaterako udal bizitza publikoan edo gobernuan.

2. Berdintasunerako Kontseiluaren helburua parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko erlazioak eta bideak ezartzea izango da, betiere erakundeon helburuak edo eginkizunak direla-eta lagungarriak badira emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko. Solaskidetza politikoan parte hartzeko gune bat da norbanako, mugimendu feministetako, emakumeen elkarteetako nahiz gizarte- izaerako beste elkarteetako ordezkariekin osatutakoa, bi helburu lortu ahal izateko: batetik, emakumei eragiten dieten udal-politiken eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko berriazko politiken aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko modua bideratzeko; bestetik, emakumeen autonomia eta jabetasuna sustatzeko, herritar aktiboekin jardunak indartuz bizitza publiko, kultural, ekonomiko eta sozialaren eremu guztietan.

3. Halaber, Parekidetasun Departamentuaren bitartez, formulak bilatuko dira emakumeek banaka edo taldeka parte hartzen dutela bermatzeko eragozpenak desagerraraz daitezten.

15. artikulua: Berdintasuna bultzatzeko bestelako interlokuziorako espazioak

1. Berdintasuna bultzatzea helburu duten bestelako lanerako espazioak sustatuko ditu Parekidetasun departamentuak, hala nola, Hezkidetza Foroa, Emakumeen Mahaia edota urteko lan plangintzari loturiko bestelakoak ere.

2. EGBLko printzipioetan jartzen duen moduan, emakumeen bizi baldintzak hobetu eta bizitzaren arlo publikoan beren parte hartzea sustatzeko emakumeen ahalduntzea sustatzeko espazio eta programa propioak sustatuko ditu Parekidetasunerako Departamentuak, hala nola, Jabetze Eskola edota Emakumeen* Etxea.

II. TITULUA: UDAL JARDUERAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO NEURRIAK

I. KAPITULUA: Berdintasunerako Plana

16. artikulua. Definizioa.

Emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean Zarauzko udal-politika nola gauzatu behar den antolatu eta planifikatzen duen agiria da Berdintasunerako Plana.

17. artikulua. Esku-hartzerako eremuak eta gogoeta espezifikoko neurriak.

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16.3. artikuluan xedatzen denari kalterik egin gabe, jarduketa-neurri zehatzak garatuko ditu Berdintasunerako Planak Ordenantza honetan aurreikusitako berdintasunerako esku-hartzeko edozein sailetan, baita interesgarriak izan litezkeen beste batzuetan ere.

2. Halaber, Berdintasunerako Planak edo horren ondorioz egin litezkeen plan edo programa zehatzek arreta berezia jarri beharko dute interseksionalitatearen ikuspegia integratzeari. Hau da, jatorri, adin, baliabide ekonomiko, sexu-orientazioa edo genero identitate anitzei, besteak beste.

18. artikulua. Prestaketa eta kontrola.

1. Parekidetasun Departamentuak diseinatu eta bultzatuko du Berdintasunerako Plana, eta bere gain joango da Plan horren jarraipena eta ebaluazio orokorra egitea. Departamendu bakoitzak berari egokitu zaizkion ekintzen ardura, jarraipena eta ebaluazioa izango ditu.

2. Halaber, Ordenantza hau izango da oinarri eta abiapuntua Berdintasunerako Planaren edukiak, norabidea eta jarduera neurriak finkatzean.

3. Berdintasunerako Planak plangintzako osagai batzuk izango ditu, eta euren artean, gutxienez, EGBLn 16.4 artikuluan jasotako edukiak izan beharko ditu:

a) Egoeraren diagnostikoa.

b) Planak egiten feminismoaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituek, kolektiboek, elkarteek eta gizarte-eragileek parte hartzeko bideak, batez ere herritarrei zuzendutako planetan.

c) Inplikaturako sailek edo arloek maila teknikoan nahiz maila politikoan parte hartzeko bideak.

d) Aurrekontua.

e) Kronograma.

f) Helburuak, ekintzak eta ezarpen-, jarraipen-, ebaluazio- eta kontu emateko sistemak, dagozkien adierazleekin.

4. Berdintasunerako Planaren diseinuan kontuan hartu behar dira Udalak eduki ditzakeen beste plan nahiz dokumentu estrategikoetan jasotako helburu eta edukiak behar den egokitzapena egiteko.

5. Zarauzko Udalak, Parekidetasun Departamentuaren bitartez, partaidetza-prozesuak diseinatu eta bultzatuko ditu, aukera emateko herritarrei, dela taldeka nahiz banaka, parte hartzeko Planaren egituratze lanetan.

6. Berdintasunerako Planaren inguruan komunikazio- eta hedatze-mekanismo egokiak egotea ziurtatuko da.

19. artikulua. Txostena.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005eko Legearen 16.6 artikuluari jarraituz, Emakunde, Emakumearen Euskal Institutuari Berdintasunerako Planaren berri eman beharko zaio onartu aurretik, hark oniritzia eman diezaion.

20. artikulua. Onarpena.

1. Zarauzko Udalak beti edukiko du Berdintasunerako Plan bat indarrean. Planaren indarraldia bukatu baino lehen, Parekidetasun departamentuak proposatuko du Plan berria egitea.

Plan berri hori onartu arte, eta beharrezkoa balitz, Osoko Bilkurak aurreko plana luzatu beharko du Parekidetasun Departamentuak hala proposatuta.

2. Gardentasuna eta kontu-emateari begira, Plana eta hauen ebaluaketak eskuragarri egon beharko dira web orrian edo eta udaleko gardentasun atarian.

21. artikulua. Urte osoko ekintza-programak.

Planak urteroko ekintza-programa izan beharko du dagozkion baliabideak definituta. Departamentu bakoitzak urtero egingo ditu ekintza-programen ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa.

II. KAPITULUA: Udal ikerketa eta estatistikak

22. artikulua. Estatistika eta ikerketen egokitzapena

1. Ordenantza honetan jasotako arauak betearazteko eta eraginkortasunez bermatzeko genero-ikuspegia bere ohiko jardunean txertatzen duela, Udal Gobernuak, bere eskumenen alorrean, otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 17. artikulua «a» letratik «f»-ra bitartekoetan ezarritakoa bete beharko du:

2. Egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexu-adierazlea jasoko da sistematikoki, aukera dagoen guztietan, "emakume" eta "gizon" aldagaiez gain, hirugarren aukera bat emanaz.

3. Soilik salbuespenezko kasuetan, Parekidetasun Departamentuaren aldeko iritziarekin eta zioak emanda dituen txostenaren bidez justifikatu ahal izango da arestian zehazturiko betebeharrak ez betezea.

23. artikulua. Ikerketa eta estatistiken esleipena.

Udal-ikerketa eta estatistikak zerbitzu-kontratuen bidez egiten direnean, enpresa esleipendunak aurreko artikuluan jasotako eginkizunak betetzeko konpromisoa hartu beharko du

III. KAPITULUA: Udal-administrazioaren zerbitzura diharduten langileen kudeaketa

24. artikulua. Xedapen Orokorra.

1. Zarauzko Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa bermatuko du lanpostuen definizioan, sarbidean, sailkapen profesionalean, promozioan, prestakuntzan, lan-osasunean, ordainsarrietan eta lan-eskubideetan, lan-baldintza duin eta ez-baztertzailak bermatuz.

2. Aurreko atalean aurreikusitako eskubideak gauzatzeko, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jasotako Berdintasunerako barne plana egin eta aplikatuko du Zarauzko Udalak, 4/2005 Legearen 16.8 puntuan esaten den moduan.

3. Artikulu honetako lehen puntuan aurreikusitako eskubideak gauzatzeko, lan-esparruan Zarauzko Udalak ondorengo neurriak aplikatuko ditu:

a) Lan politika berraztertuko du, genero-ikuspegiaren arauz.

b) Beharrezko neurriak hartuko ditu, langileen kudeaketan berdintasun-printzipioa bermatzeko.

c) Langileen lan-eskubideak berdintasunaren ikuspegitik hobetu eta erabiltzea bultzatuko du.

25. artikulua. Sarbidea, hautaketa eta sustapena.

1. Egokitzat jotako beste neurri batzuk ere har badaitezke ere, enplegu publikoko lanpostuak lortzeko, betetzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuak erregulatzen dituzten udal - arauetan edo -egintzetan, praktikaldiei buruzkoak barne hartuta, honako hauek jaso behar dira:

a) Klausula bat, gaikuntza-berdintasuna egonda emakumeei lehentasuna ematen diena emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Giza baliabideetako departamentuak estatistika egokiak eta eguneratuak izan behar dituzte.

b) Klausula bat, hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango dela bermatzeko, guztiek ere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela.

c) Aurreikuspenak, hautagaiaren lanbide-esperientzia baloratzeko merezimendu-baremoetan honako hauek ere kontuan har daitezten: lehenik, zenbat denbora egon den hautagaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bitzita pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzeko lanaldi-

murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

d) Zenbait neurri hartzea hautaketa, hornikuntza eta sustapen prozesuetan amatasunari behar bezalako babes emateko, jaio aurreko eta ondorengo aldietan, kontuan hartuta guraso bakarreko familiek nolako zailtasun erantsiak dituzten kontziliaziorako; helburua da sexuagatiko diskriminazio-egoerarik ez gertatzea. Ondorioz, deialdi bakarreko sistemarekin egiten diren ariketetan edo probetan, edo izangaiak bertaratu beharra duten beste jarduketa batzuetan, haurdunaldia, erditzea edo edoskitzea arrazoi bat izan dadila — behar bezala egiaztatuta— egintzaren denbora edo lekua aldatzea eskatzeko justifikazio gisa. Aldaketa-eskaerak onartzen badira, antolakuntza mailan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartuko dira izangai guztien lehia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko.

2.- Aurrez aipatutakoaz gain, Hautapen-prozesuetan berdintasun-printzipioa bermatu ahal izateko, eta langile berriak sartzean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaikuntza bermatzeko, Zarauzko Udalak neurri hauek hartuko ditu:

a) Berdintasunari buruzko edukiak ezartzea ikasgai-zerrendetan, bai izaera orokorrekoak, bai lortu nahi den lanpostuaren esparrukoak ere.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko aditu bat ezartzea berdintasunerako teknikarien hautapen-prozesuetako epaimahaietan.

26. artikulua. Berdintasun politiken ezagutza

1. Agintaldi bakoitzeko lehen urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal politiken inguruko oinarritzko ezagutza izateko saioak jasoko dituzte ordezkari politikoek. Horrez gain, urtero egingo zaie ezagutza hau handitzeko trebakuntza eskaintza. Parekidetasun Departamentuak onetsi beharko ditu edukiak.

2. Udal-teknikariek eta ordezkari politikoek berdintasunerako ordenantza eta parekidetasun plana ezagutu behar dituzte. Bestetik, berdintasunerako politiken ildo nagusiei buruzko informazioa emango zaie, indarrean dauden jarduera-irizpideak jakinaraziz.

3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikastaroei edota jardunaldiei buruzko informazioa emango zaie Zarauzko Udaleko teknikariei edo ordezkari politikoei, Parekidetasun Departamentuaren bitartez.

27. artikulua. Prestakuntza.

1. EGBL 18. artikuluan xedatzen dena betez, eta genero-ikuspegia administrazioaren jardunean txertatzea ahalbidetzeko, Giza baliabideetako departamentuak udal langileen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan duen oinarritzko trebakuntza bermatuko du, trebakuntza progresiboa eta espezifikoa, iraunkorra eta derrigorrezkoa. Zarauzko Udalak neurriak hartuko ditu udal langileek berdintasunari buruzko ikastaroak derrigorrez jaso ditzaten.

Herri-administrazioen euskal erakundeak emandako ikastaroen bidez edo Zarauzko Udalak antolatutako ikastaroen bidez gauzatu ahal izango da trebakuntza hori.

2. Aurreko ataleko helburua bermatzeko xedearekin, Giza baliabideetako departamentuak langileek berdintasunaren arloko prestakuntzan inbertituriko denbora neurtu eta baloratuko du, Udalean indarrean dagoen Prestakuntza Araudian jasotako irizpideen arabera.

3. Giza baliabideetako Departamentuak prestakuntza-planak diseinatuko ditu langileentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan eta Parekidetasun Departamentuarekin elkarlanean; Plan horiek elementu hauek izango dituzte gutxienez:

a) Berriazko prestakuntza-ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan, bai oinarritzko izaera orokorrekoak, bai izaera bereziago eta espezializatuagoak.

b) Emakumeek eta gizonek, berdintasunezko baldintzetan, prestakuntza bermatzeko beharrezko neurriak ezartzea.

4. Prestakuntza-planetan zehaztutako gainerako prestakuntza-ekintzetan berdintasun printzipioak eta genero ikuspegia ezarriko dira.

28. artikulua. Ordainsariak.

Orain arte egin bezala, etorkizunean ere Zarauzko Udalak beren langileen arteko soldata-arraila posibleak atzematen jarraituko du, eta eskuragarri dituen neurri guztiak hartuko ditu genero-okertasunak ezabatzeko eta berdintasunezko politika bermatzeko, bai lanpostuen balorazioan, bai ordainsarien politikan.

29. artikulua. Lan-segurtasuna eta osasuna.

Lan-segurtasunari eta osasunari dagokionez, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa burutzeko, Zarauzko Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu helburu hauek lortzeko:

- a) Genero-bereizketak aztertzea lan-baldintzetan, lan-arrisku psikosozialekiko esposizioan, higiene zein ergonomia lan-arriskuekiko esposizioan, eta, horrez gain, prebentzio-mekanismoak ezartzea.
- b) Langileen lan-etenaldien eragina aztertzea, betetzen den lanpostua kontuan hartuta. Era horretan, lanak sortzen dituen kalteak pertsonen sexura lotuta azaltzen diren egoera posibleak saihestuko dira.
- c) Generoaren ikuspegitik, laneko gaixotasunei buruzko ikerketak bultzatzea.
- d) Emakume langileen ugalketan, haurdunaldian eta edoskitzean osasunaren prebentzioa bermatzea.
- e) Indarkeria matxistaren edozein adierazpen saihestea lan inguruan, eta horretarako, lan-segurtasunerako protokoloa genero-ikuspegitik berrikustea eta beharrezko hobekuntza-neurriak aplikatzea, indarkeria matxistaren atala barnebiltzeko.
- f) Langileei egokitutako lan-segurtasunerako protokoloaren berri ematea.
- g) Langileei lan-arriskuen prebentzioan generoaren ikuspegitik prestakuntza ematea.

30. artikulua. Lanaren eta familiaren bateragarritasuna eta erantzukizunen partekatzea.

Zarauzko Udalak bere Berdintasunerako barne-planean neurri hauek hartuko ditu:

- a) Langileen lan-bizitza eta bizitza pertsonal zein profesionala bateratzen laguntzeko neurriak, betiere emakumeen jabetuntzarako ikuspegitik, eta aldi berean zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzen dutenak.
- b) Antolakuntzan aldaketa-prozesuak sustatzeko neurriak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta bizitzaren zaintzari arreta emateko.
- c) Berariazko jarduera-plan bat, zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko.
- d) Langileentzako ordutegi- eta espazio-malgutasuna bultzatzeko neurriak, betiere emakumeen jabetuntza ikuspegi batez, eta zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko.

IV. KAPITULUA: Ordezkaritza edo eraketa orekatua

31. artikulua: Ordezkaritza edo eraketa orekatua.

1. Zarauzko Udalak ordezkaritza eta osaketa orekatua bermatuko du bere administrazio-organo guztietan. Oreka hori bete ezean, kasuan kasuko organoaren edo departamentuko arduradunak zuritu beharko du txosten baten bidez zergatik ez duen betetzen artikulua hori, txosten hori erreferentziatzeko espedientearen jasoko du eta Zarauzko Parekidetasun Departamentuaren eskura jarri.

2. Artikulu honetan adierazitakoaren ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza baldin badu. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkatuta daudenean izango da orekatua.

32. artikulua: Eragindako organoak.

1. Epaimahai guztietan klausula bat izango dute, hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela bermatzeko, guztiek ere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela. Horrez gain, dena dela, egokitzat jotzen diren beste neurri batzuk ere har daitezke.

2. Hauteskundeen ostean sortzen den Udal Gobernuaren osatzean, ordezkaritza edo osaketa orekatua aplikatuko zaio, eta oreka hori bermatuta egon beharko da Batzorde Iraunkorrak osatzean, baita sortu daitezkeen beste batzordeak osatzean ere: Bozeramale Batzordean, izendapen askeko karguetan, epaimahaietan, hautaketa-epaimahaietan, udal-kontseiluetan, parte-hartze organoetan, baita gainerako udal-organoen osaketan ere.

3. Salbuespen gisa, eta ondorengo kasuetarako, organo arduradunak txostena helaraziko dio Parekidetasun Departamentuari, azken honek oniritzia emateko, ordezkaritza orekatuaren printzipioa ez aplikatzeko:

a) Kasuan kasuko udal-arloak ukitzen duen sektore eta jarduera esparruan ari diren gizon nahiz emakumeen kopurua %40ra iristen ez denean bermatu egin beharko da gutxien ordezkatutako sexuko pertsonak ordezkatuta izan daitezela gutxienez sektore edo esparru horretan sexu horrek daukan presentziaren neurri berean.

b) Emakumeen ordezkariak %60tik gorakoa denean. Ulertuko da gainordezkariak hori bat datorrela emakumeek erabakiguneetan azpiordezkariak daudelako pairatzen duten desberdintasun egoera zuzentzeko helburu orokorrek.

c) Ez dagoenean sexu jakin bateko pertsonarik kasuan kasuko organoan parte hartzeko behar den jakintza, gaitasuna eta prestakuntza daukanik, edo, nahiz eta egon, ez duenean organo horretan aritu nahi edo ezin duenean aritu ekarriko liokeen lan gaitzakeria dela medio.

d) Karguaren arabera hautatutako kidez osatutako administrazio-organoen kasuan, edota izendapena erakunde edo antolakunde zenbaitek egiten dutenean. Holakoetan, ordezkariak erakundearen printzipioa mantendu beharko da erakunde edo antolakunde bakar batek izendatutako pertsonen dagokienez, non ez zaien aplikagarri aurreko ataletan azaldutako egoeraren bat.

33. artikulua: Laguntzarako neurriak.

Ordezkariak edo eraketa erakunde bultzatu eta defendatzeko, Zarauzko Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, hurrenez hurren, helburu hauek betetzeko:

a) Hautatutako ordezkariak ez dezaten pairatu portaera edo hizkera estereotipaturik edo bestelako edozein jazarpen mota.

b) Hautatutako ordezkariak bizitza pribatua, lan bizitza eta bizitza publikoa elkarrekin uztartzeko modua izatea, segurtatuz ordutegiak eta lan egiteko moduek denei ahalbidetzen dietela beren zereginak osoki betetzea.

V. KAPITULUA: Barne- eta kanpo-informazioa eta komunikazioaren ekoizpena eta kudeaketa

34. artikulua. Xedapen Orokorrak.

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 27. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzeari kalterik egin gabe, Zarauzko Udalak komunikazio ez sexista eta barneratzailea erabiliko du edozein informazio, komunikazio, idatzizko dokumentu, ikonografia eta euskarri ekoiztean eta kudeatzean, zuzenean edo pertsona fisiko edo juridiko edo erakundearen bitartez ekoiztiak, bai barruko nahiz kanpoko komunikaziorako.

2. Emakumeek bizitza sozial, politiko, kultural eta ekonomikoaren hainbat eremutan eta gizarte-rol eta egoera guztietako edozein eremutan duten presentzia ere islatuko du Zarauzko Udalak.

3. Gainera, Zarauzko Udalak sexu baten edo bestearen gehiagotasun edo gutxiagotasunaren ideian oinarrituriko aurreiritziak, jardunak eta hitzeko adierazpenak eta irudiak ekidin eta galaraziko ditu, edo emakumeen irudi anakronikoa ematen duten emakumeen eta gizonen rol estereotipatuak.

4. Emakumeen eta gizonen trataera, protagonismoa eta balorazioa berdinak direla bermatuko du Zarauzko Udalak idatzizko, irudi bidezko eta ahozko informazioan, ikonografian, publizitatean eta barneko eta kanpoko komunikazioan. Gainera, arreta berezia eskainiko dio udal-ordezkarri politikoen jardunari, eta era berezian bultzatuko du gizonen eta emakumeen modu parekatuan ordezka dezatela Udala bere komunikazio-jardueretan, hala nola, prentsaurrekoetan, sari-banakaketetan, epaimahaietan, etab.

5. Zarauzko Udalak gizartearen eta erakundearen gaitzespena hedatuko du indarkeria matxistaren adierazpen kulturalen eta sinbolikoen aurrean.

6. Informazio, komunikazio eta ikonografia ez-sexista sustatzeko eta jokabide eta jokaera estereotipatuak ekiditeko asmoz, Zarauzko Parekidetasun Departamentuak laguntza eta aholkuak emango dizkie eskaera egiten duten udal-erakunde eta elkarte guztiei.

VI. KAPITULUA: Udaleko araudian eta jardueran generoak duen eragina

35. artikulua. Definizioa eta objektua.

1. Ordenantza honen ondorioetarako, edozein udal-jarduera edo araudiren aurretiazko edo ondorengo ebaluazioa da genero-eraginari buruzko ebaluazioa, jarduera horrek emakumeen eta gizonen berdintasunean edo desberdintasunean dituen benetako ondorioak edo balizkoak zein diren jakiteko egina.

2. 4/2005 Legearen 20. artikuluan ezarri denari kalterik egin gabe, eta aipaturiko lege horren 20.1. artikuluan xedatu denaren itzalpean, dagokion departamentu sustatzaileak genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharko du tokiko arauen proiektu guztietan eta horiek aldatu eta eguneratzen direnean: ordenantzetan, erregelamenduetan, hirigintza- eta

aurrekontu-arauetan, enplegu publikorako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei buruzko proposamenetan eta Plan sektorial eta estrategikoetan.

3. Parekidetasun departamentuari dagokio Genero eraginaren aurretiazko ebaluaketaren txostena egoki egin zen egiaztatzea, eta hala jasoko du txosten baten bidez.

4. Hala ere, arau-proiektu hauek salbuetsita daude:

- Genero-ikuspegitik garrantzirik ez daukaten arau-proiektuak.
- Funtsean antolaketa helburu duten arau-proiektuak.

5. Salbuespena egingo da txosten arrazoitu baten bidez justifikatzen bada aruari edo planari ez dagokiola genero-ikuspegia txertatzea; txosten hori departamentu sustatzaileak egingo du Parekidetasun departamentuari helaraziko zaio.

36. artikulua. Txostena egiteko gidalerroak.

Zarauzko Udalak genero eraginari buruzko aurretiazko ebaluaketa egiteko jarraibideak onartuko ditu eta jakinaraziko ditu udal langileen artean.

VII. KAPITULUA: Genero-ikuspegidun aurrekontuak

37. artikulua. Xedapen Orokorra.

1. Zarauzko Udalak Ordenantza honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak gauzatzeko, eta oro har, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko baliabide ekonomikoak bere aurrekontuetan esleitu eta zehaztuko ditu urtero, gutxienez, udal aurrekontuaren %1,5.
2. Aurrekontuen prozeduran genero ikuspegia txertatzeko, aurrekontu proposamenaren espedienteak genero eraginaren aurretiazko analisisa egiten duen txosten bat jaso beharko du.

VIII. KAPITULUA: Lehiaketa eta kontratu publikoak

38. artikulua. Xedapen Orokorra.

1. Zarauzko Udalak, bere kontratazio publikoan, genero-ikuspegia sartu beharko ditu nahitaez, genero-zeharkakotasuna modu eraldatzailean garatzearren, salbu eta objektiboki justifikatzen bada kontratuaren xedeak ez duela loturarik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, kontratu-prestazioak ez duelako eraginik emakumeen eta gizonen egoeran, eta ezin delako horrelako klausularik sartu, eta kontratazio publikoaren arloko oinarrizko araudiarekin bat eginez. Zeregin horren ardura izango du kontratuaren departamentu arduradunak.
2. Zarauzko Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak sartuko ditu kontratazio guztien baldintza-pleguetan, administrazio-klausuletan eta preskripzio teknikoetan, hain zuzen ere gobernu, zuzendaritza edo teknikariaren arloko erantzukizuna izanik.
- 3.- Besterik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatuko dituzte adjudikazio-irizpideetan eta exekuzio-baldintzetan, bereziki kontuan hartuta bereizkeria anizkoitza eta interseksionalitatea. Helburu horretarako, honako neurriak ezarriko dira:
 - a) Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantza.

Besteak beste, 50 langiletik gorako enpresek Berdintasun Plana behar bezala erregistratuta izatea, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak izatea eta ordainsarien auditoria-erregistroa egina izatea.

b) Horrez gain, Pertsona edo entitate lizitatzailerak gutxienez hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du kontratuaren iraunaldi guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera. Eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da inolaz ere ezarritako soldata baino txikiagoa izan. Baldintza hau betetzen dela bermatzeko, beharrezkotzat jotzen bada, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzak jasotzen dituen hitzarmenaren kopia eta nomina-agiriak, edo, kasuan kasu, zinpeko aitortpena, eskatuko dira.

c) Zerbitzua garatuko duten talde lizitatzailerako pertsona guztiek emakumeenganako eta gizonenganako jarrera errespetagarria eta berdinzalea edukiko dute une oro, eta inoiz ez dute izango jarrera desatsegin, mingarri edo diskriminatzaileak, sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioagatik.

4.- Kontratazio-prozeduratik kanpo geratuko dira Estatuko oinarrizko legerian kontratatzeko debekua ezarrita duten pertsona fisikoak eta juridikoak; horien artean, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez betetzeagatik eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren prebentzioaren arloko arau-hauste oso astuna dela-eta egindako delituengatik edo zehapen irmoengatik jarritakoak.

5.- Genero-ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat denean, xede horren definizioan berariaz txertatu ahal izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aipamen espezifiko bat.

6.- Kontratuaren xederako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaitasun espezifikoak eskatzen badira, gaitasun tekniko edo profesional gisa eskatuko da esperientzia zehatza, ezagutzak edo prestakuntza izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

7.- Salbu eta objektiboki justifikatzen ez bada kontratuaren xedeak ez duela loturarik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin artikulua honen lehen paragrafoan aurreikusitako baldintzetan, kontratua sustatu duen departamentuak honako hauek sartuko ditu kontratazio-agirietan:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako adjudikazio-irizpideak, baremoaren guztizkoaren % 5ko haztapenarekin, gutxienez.

b) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea; emakumeak bereizten dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitateak dituen irudia sustatzea.

c) Baldintza hau betetzen dela bermatzeko, kontratuak iraun duen bitartean erabili den dokumentazio, publizitate, idatzi nahiz material grafikoen kopiak (euskarri informatikoan) eskatuko dira.

d) Kontratuaren jarraipenari lotutako memorietan pertsonen buruzko datuak sexuaren arabera desagregatuak emango dira eta datuen analisia egingo da.

8.- Beste neurri batzuei kalterik egin gabe eta indarrean dagoen berdintasunerako legediaren arabera (902/2020 Errege Dekretua), kontratuaren esleipendun izendaturiko pertsona juridikoak (horren estatus juridikoa edozein dela ere) nahitaez bermatu behar du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurri zehatzak hartu dituela eta ordainsarien auditoria-erregistroa egiteko erabilitako taula egina duela erakutsiko du eta sexuagatiko arrakalaren kontrako neurriak hartu dituela.

9.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen direla egiaztatu beharko da, eta horretarako:

a) Kontratistak nahitaez bete beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausula guztiak, eta horiek behar bezala exekutatu direla egiaztatu beharko du, dagokion dokumentazioa aurkeztuta, kontratua arautzen duten pleguetan adierazitako moduan.

b) Agirietan zehaztuko da zer ondorio dituen aipatutako klausulak urratzeak, bat eginez sektore publikoko kontratuen legerian ezarritakoarekin.

c) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko berdintasun-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. Halaber, baldintza hauek betetzeko, adjudikaziodunak Parekidetasun Departamentuaren aholkularitza eta laguntza jaso ahal izango ditu.

d) Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLren ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikuluen arabera.

IX. KAPITULUA: Diru-laguntzak ematea

39. artikulua. Xedapen Orokorra.

Zarauzko Udalak nahitaez sartu beharko du genero-ikuspegia diru-laguntzak arautzen direnean, fase guztietan, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak sartu behar dituzte balorazio-irizpideetan eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen betebeharretan, genero-zeharkakotasunaren estrategia garatzeko. Zeregin horren ardura izango du dirulaguntzaren departamentu arduradunak.

40. artikulua. Debekua.

Zarauzko Udalak ez die inolako diru-laguntzarik emango honako hauei:

a) 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei. zehapenak irauten duen denbora tartean.

b) Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

c) Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

d) Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

41. artikulua. Balorazio irizpideak.

1. Zarauzko Udalak, dirulaguntza publikoak erregulatzen dituzten oinarri edo arauetan, balorazio-irizpideetan, baremoaren gutzizko % 5a izango da, gutxienez, emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutakoa. Horretarako, honako klausulak ezarri daitezke:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako ibilbide bat egiaztatzea.

b) Beren estatutuetako helburuen, xede sozialen edo sorrerako helburuen artean berdintasunaren sustapena izatea.

c) Diruz lagundutako proiektua edo jarduera exekutatu duten pertsonen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa izatea.

2. Hori guztia, baldin eta objektiboki justifikatzen ez bada ehuneko hori neurritz kanpoko delat dirulaguntzak emakume eta gizonen egoeran duen inpaktuari dagokionez.

42. artikulua. Baldintzak.

Dirulaguntza eman behar duen departamentuak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera, ondorengo baldintzak ezarriko dizkio dirulaguntza jasoko duenari.

a) Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, programa edo jardueran genero ikuspegia txertatzea.

b) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio barneratzailea erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexistak saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.

c) Diru-laguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).

d) Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.

X. KAPITULUA: Espazio publikoaren erabilera

43. artikulua. Baldintzak.

1. Zarauzko Udalak espazio edo/eta eraikin publikoen erabilera baimentzerako orduan kontuan izango du eskatzaileek emakume eta gizonen arteko bereizkeriak saihesten dituztela eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen dituztela.

2. Baimena eman behar duen departamentuak ondorengo baldintzak ezarriko zaizkie:

a) Ezin izango da diskriminaziorik egin sexua, ideologia, jaioterria, nazionalitatea edo sexu-joera bezalako arrazoiengatik. Antolatutako jardueraren eduki bakar batek ere ez du edukiko inolako mezu eta/edo ikonografia sexistarik eta genero-ikuspegia kontuan hartu beharko dute.

- b) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea; emakumeak bereizten dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitateak dituen irudia sustatzea.
- c) Sariak berdinak edo balio berekoak izango dira emakumeentzat zein gizonentzat.
- d) Epaimahaian eta agerraldietan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izango da (%40-%60)

III. TITULUA: UDAL POLITIKA, EKUMEN ETA ESKU-HARTZE EREMUETAN

BERDINTASUNA SUSTATZEA

I. KAPITULUA: Giro ludikoa, osasuntsua eta sortzailea, berdintasunean

44. artikulua. Kultura.

1. Zarauzko Udalak genero-ikuspegitik berrikusiko du tokiko kultur-politika, eta neurri egokiak hartuko ditu emakumeek kulturaren arloan duten partaidetzaren inguruan hautemandako balizko eskasiak pixkanaka konpontzeko (kulturaren sorkuntzan, erakusketan, hedapenean, edo bere kontsumoan).

2. Halaber, egungo joera orekatzeari begira, Zarauzko Udalak neurriak hartuko ditu emakumeek arte- eta sorkuntza-ekoizpenean parte har dezaten bultzatzeko. Kultur-jardueren kontsumoan emakume eta gizonen parte-hartze orekatua sustatuko da.

3. Zarauzko Udalak bere kultur-politikaren eremuan programaturiko edukietan mezu edota ikonografia sexista galaraziko du.

4. Zarauzko Udalak emakumeek kulturari eta arte-jarduerari eginiko ekarpena ikusarazteko neurriak hartuko ditu.

45. artikulua. Jaiak eta Turismoa.

1. Udalak toki-mailako jai-gunearen eta denboraren balio sinbolikoa aitortzen du, eta horrexegatik hitzartzen du gunek horrek emakumeenganako izan dezakeen diskriminazioaren gaineko diagnostikoa egitea eta diskriminaziozko ezaugarriak ezagutzea eta aitortzea. Jai-gunearen eta denboraren osagai guztiak berdintasun-irizpideei hertsiki lotzen zaizkiela ere zainduko du Udalak.

2. Zarauzko Udala jaietako ekintzak eta bertan sortutako giroa udalerriko pertsona guztiek jaiak gozatzeko giroa sortzeko lagungarriak izateaz arduratuko da, sexua, adina, jatorria, hezkuntza-maila, egoera ekonomikoa edo sexu-aukera dela-eta pertsona batek ere ez dezan mugatua izan jaiak gozatzeko eta ekintza guztietan parte hartzeko duen eskubidea.

3. Zarauzko Udalak, herriko jaiak antolatzen dituzten elkarte eta eragileekin batera, berdintasunezko eta indarkeria sexistarik gabeko jaien ildoan egingo du lan, eta herritar guztientzako jai paritarioagoak bilakatuko ditu.

4. Zarauzko udalak turismoa sustatzeko antolatzen dituen jarduera eta ekitaldietan genero ikuspegia txertatuko du. Horretarako genero estereotipoak deseraitzeko ahalegina egingo du, sexu-bereizkeriak saihestu eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatuko du. Baita genero identitate anitzak eta familia eredu berriak kontuan hartuko ditu.

46. artikulua. Hedabideak.

1. Zarauzko Udalak ez die hedabide sozialei inolako diru-laguntzarik emango, hedabide horiek beren komunikazio-lanean emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburuarekin konpromisoa hartu ezean.

2. Hedabideek hartutako konpromisoak, gutxienez, alderdi hauei eragingo die:

a) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea; emakumeak bereizten dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitateak dituen irudia sustatzea.

b) Emakumeek hedabidean parte-hartze aktiboa izango dutela bermatzea, presentzia orekatua, eta sexu-generoen irudi anitza ematea, hots, bizitzako alor desberdinetan betetzen dituzten eginkizunei buruzko estereotipo sexista eta edertasun-ereduak baztertuz eta haur eta gazteei zuzenduriko edukiak bereziki zainduz.

c) Emakumeek bultzaturiko edo haiei zuzenduriko jarduera politiko, sozial, kirol- eta kultur-ekintzak hedatuko direla bermatzea, baita emakumeen ahalduntzea bultzatzen dutenak ere, gizonetikiko berdintasun-baldintzetan.

d) Ahal den guztietan, udalerriko emakumeei –bakarka zein taldean– zuzendutako berriarazo parte-hartze espazioak sortzea (iritzi-zutabeak, eta abar), haien iritziek, bizipenek eta errealitatearen interpretazioek gizartean oihartzuna izan dezaten.

47. artikulua. Kirol-jarduera eta ohitura osasungarriak.

1. Zarauzko Udalak kirolaren arloko eragileekin lankidetzat bultzatuko du, emakumeen kirola sustatzeko konpromisoa lortzeari begira, edozein modalitatetan, tipologiaan (amateurra, «federatua», etab.) edota adin-taldetan.

2. Zarauzko Udalak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du, ez soilik kirolean, baizik eta kirolarekin lotutako kudeaketaren eta erabakien gaineko eremuetan ere bai (klubak, elkarteak, etab.).

3. Zarauzko Udalak askotariko kirol-eskaintza bermatuko du, eta emakumeak eta gizonak sexuen arabera bereizitako ustezko gaitasunetan eta ezaugarrietan oinarrituriko kirol-jardunetan sailkatzen dituzten estereotipoak hausteko jolas-kirol jarduerak izango ditu. Halaber, kirolaren dibertsifikazioaren alde lan egitera bultzatuko ditu tokiko gainerako kirol-eragileak.

4. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia txertatuko du kirolarekin zerikusia duten araudietan, baita kirol-esparruko diru-laguntzetan eta instalazioetako zerbitzuen kontratazioan ere. Horrela, pertsona edo enpresa esleipendunek zerbitzua kudeatzeko eta emateko proiektuan genero ikuspegia txertatu beharko dute nahitaez, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa bermatu beharko dute, bai antolaketan, bai zerbitzua ematen dutenean; barne zein kanpoko informazioa eta komunikazioa kudeatzen dutenean.

48. artikulua. Osasuna.

1. Udalak konpromisoa hartzen du udalerriko emakumeek genero-sistemak ezartzen dizkien eginkizun eta betebeharren ondorioz nozitzen dituzten osasun-arazoak ikertu eta ikusgarri egiteko (funtsean, etxeko lanekin eta pertsonak zaintzearekin lotutakoak).

2. Udalak ekintzak eta programak bultzatuko ditu udalerriko emakumeei beren osasuneko parte aktibo eta protagonista bihurtzen laguntzeko, eta horretarako, haien ongizatea lortzera bideratutako proposamenak prestatzen parte hartuko du.

3. Norberarentzako osasungarriak eta inguruarekiko errespetuzkoak diren jokabide, arau eta ohiturak sortuko dituzten eredu eta erreferenteak hedatuko ditu Zarauzko Udalak.

49. artikulua. Sariak.

Zarauzko Udalak, alor guztietan eta departamentu ororen bidez emandako sariak, diru-sariak, aipamenek edota laguntzek genero-ikuspegia hartuko dute kontuan, eta bereziki baloratuko da Zarauzko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde izandako ibilbidea.

Emakumeei eta gizonei ematen zaizkien sariak balio bera izango dute.

II. KAPITULUA: Hezkidetza eta sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna errespetatzea

50. artikulua. Hezkidetza eta Gazteria.

1. Zarauzko Udalaren lehentasunezko helburua izango da eta, zehazki, Parekidetasun Departamentuarena, etengabeko harreman onak izatea tokiko eskolako komunitateko ordezkariarekin (irakasleak, gurasoak, ikasleak, etab.), beharrak hautemateko eta haiei laguntzeko hezkidetzako eskolaren bidean.

2. Zarauzko Udalak lankidetzarako ekimenak abiarazten jarraituko du eskolekin eta hezkuntzako erakundeekin eta eragileekin, berdintasunarekin lotutako balioak sustatzeko, eskolari berriazko heziketa-eskaintza emanez hezkuntza-maila guztietan. Hala nola, gai hauek lantzeko programak eskainiko ditu: hezkidetzak, hezkuntza afektibo-sexuala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, indarkeria sexistaren prebentzioa eta sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna.

3. Zarauzko udalak gazteentzako sustatzen eta gauzatzen dituzten jardueretan eta zerbitzuetan berdintasunerako printzipioak eta genero ikuspegia txertatuko ditu.

4. Udalak udalerriko gazteen sexu-heziketara bideratutako ekintzak eta programak bultzatuko ditu, gazteek behar bezalako sexualitatea izan dezaten, sexualitate askea, estereotipo eta aurreiritzirik gabea, eta norberak bere gorputz eta sexualitatearen jabe eta arduradun bakar gisa hartutako erabakien arabera.

51. artikulua. Sexu-aukera eta genero-identitatearen aniztasuna errespetatzea.

1. Zarauzko Udalak sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen gaineko aniztasuna aitortzen du. Halaber, pertsonen arteko harremanak ez heterosexuak izan daitezkeela eta bestelako familia-ereduak sor daitezkeela aitortzen du. Horregatik, udalerriko herritar guztiak heterosexuak direla suposatuta behar ez dela ere aitortzen du, baita nor bere genero-identitatea bere gorputzaz askatasunez kudeatu dezakeela ere. Azkenik, lesbianek, transexualek, queerrek, gayek eta bisexualek berriazko diskriminazioa bizi dutela ere adierazten du, heteroarauaren parametroetatik kanpo daudelako.

2. Aurreko atalean adierazitakoa dela eta, Zarauzko Udalak honako neurri hauek bultzatuko ditu:

a) Herritarrek maitasun-, sexu-harremanak eta genero-identitatea askatasunaz bizitzeko eskubideei buruzko sentsibilizatzeko kanpainak edo antzekoak egitea.

b) LGBTQ+ kolektiboak jasaten duen diskriminazioaren kontrako berriazko tresnak eta neurriak sustatzea.

III. KAPITULUA: Gizarte-zerbitzuak, zainketak eta ardura partekatua

52. artikulua. Xedapen Orokorra.

1. Udalak behar diren laguntza eta zerbitzuak emango dizkie udalerriko emakume eta gizonei, sexuaren inguruko desberdintasunak eta genero-harremanen ondoriozko aldeak kontuan hartuta. Hala, baliabideak emakume eta gizonen egoera desberdinetara egokituko dira eta, bereziki, guraso bakarreko familietara eta egora ahulean dauden bestelako taldeetara.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako beharrak zein diren zehazteko, diagnostiko egokituak eta zehatzak egingo dira.

3. Zainketa-lanak udalerriko bizitza ekonomiko eta sozialean eta lotura sozialak sortzeko orduan duen garrantziagatik, Udalak lehentasuna emango dio diru-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak emateari, adin txikiko pertsonak eta mendekotasuna duten bestelakoak zaintzeko lanak egiteko bada, eta, edozein kasutan, eginkizun horietan emakumeen eta gizonen ardura partekatua bultzatuko du.

53. artikulua. Ekintzak.

Aurreko atalean aipatutako prestazioak bermatzeko, Udal Gobernuak, beharren diagnostikoaren arabera, ardura hauexek izango ditu:

a) Ikuspegi feministak oinarri gisa hartuta, eztabaidak egin eta proposamenak osatzea, Zarautzen zaintza duinen eredu bat sustatzeko.

b) Zarauzko Udalaren esku-hartzeek inolako estereotiporik ez edukitzea, zaintza-lanak norik egin behar dituen eta norik egin ditzakeenaren inguruan.

c) Zaintza-lanak emakumeen berezko gaitasun eta zeregin gisa identifikatzen dituen ideia hausten laguntzea, baita gizonezkoa enplegua eta etxeko diru-sarreraren arduradunaren irudia haustea ere, zaintza-lanen inguruan erantzukizun eta premiarik gabekoaren irudiarekin lotzen duena.

d) Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzea.

e) Pertsona guztien zaintzak jasotzeko eskubidea sustatzea, zaintzak jasotzen dituzten pertsonen autonomia sustatzen dela ziurtatuz, eta neurriak hartuz emakumeen gain eraturako familia barruko zaintza-ereduak birsortzen ez direla bermatzeko.

f) Zaintzaile ez-profesionalek zaintza-lanak egiteko orduan dituzten baldintzak erraztu eta duintzea, zaintzaileen ongizatea eta eskaerak kontuan harturik, eta etxeetan zaintza-lanak modu bidezkoagoan banatzen direla sustatuz.

IV. KAPITULUA: Tokiko garapen zuzena eta parte-hartze aktiboa

54. artikulua. Jarduera ekonomikoa eta enplegua.

1. Udalak konpromisoa hartzen du emakumeek udalerriko garapenean betetzen duten eginkizuna ezagutzera emateko, ikusgarri egiteko, hedatzeko, eta eginkizun horri garrantzia emateko. Horretarako, Zarauzko Udalak ekintzak eta programak bultzatuko ditu, hainbat ikuspegitatik emakumeek udalerriko gizartean, ekonomian eta lan-esparruan zer-nolako papera betetzen duten ikertu eta diagnostikatzeko.

2. Halaber, harreman etengabe eta erraza izango du udalerriko enpresa eta ekonomia-jarduera garatzen laguntzen duten udalerriko eragileekin emakumeek alor horretan dituzten baldintzak hobetzeko.

3. Udalak, udalerriko ikastetxeekin eta hezkuntza-entitateekin dituen harremanetan, ekintzak eta programak bultzatuko ditu neska-mutilak beren sexuari lotuta egon ohi diren ikasketak hautatzera bultzatzen dituzten eta indarrean dauden genero-estereotipoak hautsiko dituen orientazio akademikoa ezarri ahal izateko; izan ere, estereotipo horiek desabantaila-egoeran egonarazten dituzte emakumeak lan-merkatuan eta oro har, ekonomia-eremuan.

V. KAPITULUA: Guzti-guztiok bizitzeko moduko ingurunea, iraunkorra eta segurua

55. artikulua. Hiri-plangintza eta tokikoa.

1. Zarauzko udalak, funtzio anitzeko hirigintza sustatuko du (hirigintza zonifikatua eta funtzio bakarrekoa alde batera utzita). Bestalde, lurraldearen antolamenduaren, hiri-plangintzen eta zerbitzuen antolaketa bidez, ondorengo neurri hauek hartuko ditu:

a) Udalerriko leku ez seguruak ezabatzea eta herriko leku guztietan segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea

b) Berdintasunerako politikak eskatzen dituzten bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazten duten zerbitzuen eta ekipamenduen kokapen estrategikoa

c) Irisgarritasuna bermatzeko eta barrera arkitektonikoak desagerrarazteko baliabideak jartzea

d) Ekipamenduen eta zerbitzuen ordutegien eskaintza erantzunkidetasunaren eta zaintzen beharretara egokitzea.

e) Herritarren ongizatea sustatzeko herriaren diseinua egokitzea (parke estaliak, atsedenerako lekuak, elkartzeko guneak eta antzekoak ezarriz)

2. Zarauzko Udalak herritarren partaidetza bultzatzeko neurri egokiak hartzea hitzartzen du hiri-plangintza berrikusteko prozesu guztietan, eta horretarako, emakumeen eta emakume-taldeen partaidetza ziurtatuko du prozesu horietan. Izan ere, partaidetza paritariaoa lortzea da xedea.

3. Era berean, bere egingo du parte hartzeko prozesu-mota horiek burutzeko ardura duen pertsonala gaitzeko, sentsibilizatzeko edota aholkuak emateko eginkizuna.

4. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia hirigintzako plangintzan txertatzeari buruzko gogoeta eta azterketarako guneak bultzatzea hitzartzen du.

5. Era berean, herria genero ikuspegitik aztertuko du, euren diseinua, zerbitzuak eta funtzionamendua; eta herritarren segurtasuna, irisgarritasuna, osasuna eta ongizatea sustatzeko azterketan ateratako ondorioen arabera, arazoak edo gabeziak konpontzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

56. artikulua. Etxebizitza.

1. Udalak aitortzen du kalitatezko etxe duin bat edukitzea pertsonaren eta bere familiaren ongizaterako funtsezko behar batean oinarritutako eskubidea dela. Horregatik, aitortzen du eskubide hori modu berean gizon eta emakumeek eduki dezaten, kontuan hartu behar direla emakumeen behar eta zailtasunak, handiagoak eta bereziak baitira.

2. Gainera, gizon eta emakumeek etxebizitza edukitzeko eskubide berbera dutela aitortzen du, bai errentan hartuta, erosita edo jabetza lortzea ahalbidetzen duen beste modu baten bitartez.

3. Etxebizitza duina edukitzeko eskubidea berdintasunez gauzatu ahal izateko, Udal Gobernuak arreta berezia jarriko du egoera ahulean dauden emakumeek beren behar espezifikoengatik izan dezaketen etxebizitza-ekastasan egoeretan.

57. artikulua. Hiri-mugikortasuna.

1. Zarauzko udalak Hiri Mugikortasunaren planean genero ikuspegia txertatuko du bere atal guztietan; aurre-diagnostikoan eta planaren diseinuan, egituraketan, jarduketa ildoetan eta neurrietan.

2. Zarauzko Udalak emakumeen partaidetza bultzatu eta ziurtatuko du mugikortasun politiken eta garraio publikoarekin lotutako diseinuaren, plangintzaren, kudeaketaren eta erabakien arloetan, gaur egun emakumeak baitira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak. Horrez gain, kontuan hartuko ditu bestelako kolektibo zaurgarriak, hala nola, aniztasun funtzionala dutenak, adinduak eta gazteak, baita baliabide urriko pertsonak ere.

3. Zarauzko Udalak bere kargura duen garraio-zerbitzu publikoaren, funtzionamenduan, arautegian eta kudeaketan genero-ikuspegia sartzeko konpromisoa hartzen du. Konpromiso horrek berekin ekar litzake, besteak beste, ibilbideak, ordutegiak eta maiztasunak aldatzeko neurriak, erabilitako ibilgailuetan aldaketak egitea (mugikortasun urriko pertsonak ibilgailuetan sartzea murrizten duen oro kenduta) edo ordutegiei eta ibilbideei buruzko informazioa hobeto ezagutaraztea.

4. Zehazki, garraio publikoak pertsonen ongizatea bermatzeko eguneroko ezinbesteko eginkizunen ondoriozko beharrak lehentasunez betetzen dituela zainduko du Zarauzko Udalak, halako moldez non garraio publikoaren funtzionamendua ez baita egongo soilik lotuta ekoizpen-lanen ondoriozko beharrekin (ordaindutako lana), baizik eta familiak zaintzeko eta hornitzeko eginkizunekin ere bai.

5. Haurren autonomia garatzeko eta haurrak zaintzeko ardura duten pertsonen bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko neurriak abiarazteko lana ere erraztuko du, hainbat ekimen sustatuz hala nola eskola-bideen trazatua udalerrian; ibilbide malguak eta ibilbide errazak, haurrak oinez joateko modukoak, hainbat eragileen parte-hartzeari esker (eskola, irakasleak, familiak, udal-administrazioa, auzuneko establezimenduak, elkarteak, etab.) babestuta dauden irudipena izango duten ingurunean.

58. artikulua. Gune seguruak.

1. Udalak, Zarautz hiri segurua izan dadin, beharrezko analisi eta azterketak egingo ditu maiztasunez, emakumeentzako arriskutsuak diren guneak identifikatu eta hiriaren diseinutik espazio seguruak sustatzeko.

2. Aurrekoa bermatzeko, Herrilan eta Hirigintza departamentuek, heritarrek, eta bereziki, emakumeek identifikatutako leku ez seguruak ezabatzeko, beharrezko obrak, neurriak eta hobekuntzak gauzatuko dituzte.

59. artikulua. Ingurumena.

1. Zarauzko Udalak genero-ikuspegia ingurumenaren hobekuntzarekin lotutako politika publikoetan txertatzea bultzatuko du. Hartara, emakumeen eta gizonen bizimoduekin lotutako berriazko beharrak aintzat hartuko ditu ingurumenaren gaineko politiken eta zerbitzuen garapenean.

2. Zarauzko Udalean ingurumen-eskumenak egokitzen zaizkion arloak, bakarka edo beste arloekin batera, ondoko neurri hauek hartuko ditu:

a) Gizon eta emakumeen bizimoduei lotutako beharizan espezifikokoak arlotik bultzatzen diren politiketan eta zerbitzuetan sartzea, partaidetzan oinarritutako demokrazia bultzatuz eta informaziora iristeko bidea hobetuz.

b) Zarauzko auzotarren osasun- eta bizi-kalitatea hobetzeko eta iraunkortasuna garatzeko, genero-ikuspegidun iraunkortasun-printzipioak sartzea. Horretarako, iraunkortasuna kudeatu eta ebaluatzeko programa eta estrategia eraginkorrak garatuko dira.

c) Herritarrak sentsibilizatzea zein garrantzitsua den kontsumo jasangarriaren jarraibideei eta bizimodu arduratsuei eustea, betiere kontuan hartuta emakume eta gizonen errealitatea ezberdina dela.

d) Hirigintzaren plangintzak eta diseinuak duten eginkizun estrategikoa eta bateratzailea indartzea, betiere berdintasun- eta hirigintza-arloetako eskumenak dituzten udal-arloekin koordinatuta.

60. artikulua. Senidetzeak eta nazioarteko lankidetzak.

1. Udalak aitortzen du Europan eta nazioartean senidetu eta lankidetzan aritzeak balioa duela pertsona guztiak hiritargo oso batera hurbiltzeko, eta pertsona eta eskualdeen arteko desberdintasunak ezabatzeko.

2. Europako eta nazioarteko beste toki batzuekin senidetu eta lankidetzan aritzeko, Udalak konpromiso hauexek hartzen ditu:

a) Lankidetzak-jardueretan genero-ikuspegia txertatuko du, hartara gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatu eta desberdintasunezko harremanik ez finkatzeko.

b) Europako eta nazioarteko senidetze-harremanak eta kideak bizipenak eta gizon eta emakumeen berdintasunarekin lotutako ezagutzak trukatzeko plataforma gisa erabiliko ditu.

c) Emakumeek lankidetzaproiektuetan eta senidetze-harremanetan parte hartuko dutela bermatuko du.

61. artikulua. Tokian tokiko oroimena.

Udalak aitortzen du tokian tokiko oroimena nortasuna artikulatzen duen funtsezko elementua dela. Horregatik, kasuan kasu dagokion departamentuaren bitartez, emakumeek historian eta udalerraren garapenean egin duten lana ikusgai jarri eta aitortua izango dela ziurtatzeko ekimenak martxan jarriko ditu eta, berariaz, tokian tokiko oroimena gorde eta hedatzeko elementuetan emakumeak ere ager daitezen bultzatuko du; hala nola, kaleetan, parkeetan, plazetan, eraikinetan, monumentuetan eta bestelako elementu sinbolikoetan, hiri-garapen berrietan, eta abar.

IV. TITULUA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

I. KAPITULUA: Xedapen orokorra

62. artikulua. Definizioa.

1. Zarauzko Udalak emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko politikak sustatuko ditu.
2. Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da. Emakume iza-teagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne. Horrela, neurriz kanpo eragiten dien indarkeriari aurre hartu nahi zaio, bai eremu publikoan, bai pribatuan.
3. Emakumeen kontrako indarkeria matxistak esparru ezberdinetan eragiten du (bikote-harremanetan, familian, lan-esparruan, eskolan, gune birtualetan) eta modu ezberdinetan (psikologikoan, ekonomikoan, fisikoan, sexuzkoan...).
4. Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren definizioa, eta politika hauen eragin eremua, asko zabaldu da azken urteotan. Horregatik, argipenatarako "Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio eta borrokari buruzko hitzarmena (Istanbul, 2011) eta EGBLko 54. artikuluan jasotzen denaren arabera interpretatuko da udal-ordenantza hau.
5. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa, emakumea atsekabetzeko borondatez.

63. artikulua. Jarduera-esparru orokorra eta neurrien egokitzapena.

Udal-politika publikoen diseinuak, departamentu guztietan eta bakoitzaren jarduera-esparruan, indarkeria matxistaren mota guztiak hartuko ditu kontuan, baita behartutako gorputzak, indarkeria hori zein espaziotan eta nork egiten duen eta horren aurkako erresistentzia motak ere.

II. KAPITULOA: Prebentzioa

64. artikulua. Prebentzioa eta sentsibilizazioa.

1. Zarauzko Udalak berak bakarka nahiz beste erakunde batzuekin batera, kanpainak eta ekintzak egingo ditu Zarauzko herritarrak indarkeria sexistaz kontzientziatzeko.
2. Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen kolektiboaren zein emakume banakoen jabetza indartuko du, eta hori guztia Zarauzko Udaleko beste udal-arlo batzuekin elkarlanean.
3. Indarkeria matxistako edozein agerpideren aurrean (eta ez soilik giza-hilketak edo askatasun sexualaren aurkako delituak direnean), instituzioak, Udalaren barruko arlo guztiak, elkarteak, dendak, toki-entitateak, hedabideak eta, oro har, herritarrak sentsibilizatu eta mobilizazioetara bultzatuko ditu beren arbuioa publikoki erakustera.
4. Halaber, gizonezkoen zuzendutako ekintzak ere bultzatuko ditu konpromiso irmoa har dezaten indarkeria sexistaren aurka eta jarrera arduratsua har dezaten portaera sexisten aurrean.

65. artikulua. Trebakuntza.

1. Zarauzko Udalak prestakuntza emango die bere langileei indarkeria sexistako gaietan, bereziki indarkeria hori pairatzen duten emakumeak zuzenean artatzen dituzten teknikariei. Orobat, prestakuntza hori bera bultzatuko du indarkeria sexista pairatzen duten beste sektore batzuentzako politikak gauzatzen dituzten udal-arloetan ere.
2. Parekidetasun Departamentuak prestakuntza-ekitaldiak sustatuko ditu Zarauzko erakunde eta elkarteentzat, bereziki emakumeen zuzenduak, irakasteko nola gauzatzen den indarkeria sexista, nola ezagutu daitekeen eta nola egin dakiokkeen aurre.
3. Parekidetasun Departamentuak bultzatzen jarraituko du herriko ikastetxeetan ikasle eta irakasleentzako prestakuntza-saioak antola daitezela berdintasuna sustatzeko eta indarkeria sexista prebenitzeko, dela zuzenean, dela gai horrekin zerikusia duten beste erakunde eta entitateekin koordinaturik.

III. KAPITULUA: Detekzioa, arreta, koordinazioa eta erreparazioa.

66. artikulua. Baliabideak, arreta, babesa eta erreparazioa.

1. Zarauzko Udalak, Zarauzko udalerrian indarkeria matxistari arreta emateko beharrezko baliabideak eta zerbitzuak diseinatu eta garatuko direla bermatuko du. Gutxienez, harrera, deribazioa, arreta psikologikoa eta laguntza juridikoa eskaintzen dituzten zerbitzuak beteko ditu. Indarkeria sexista pairatzen duten emakumeen prekarizazio ekonomikoari aurrea hartzeko eskura dauden prozesuak eta baliabideak indartuko ditu.

2. Zarauzko Udalak neurri hauek bultzatuko ditu bere eskumenen barruan:

a) Bermatuko du indarkeria sexista pairatzen ari diren emakumeek arreta osoa eta pertsonalizatua jasotzen dutela, indarkeria egoeretatik sortzen diren beharrian guztiei erantzuteko gisan, eta beren eskura jartzen direla kasu bakoitzeko inguruabar sozial edo pertsonalek eskatzen dituzten baliabide egokienak.

b) Berdintasuna bermatuko du eta ez du onartuko inolako bazterkeriarik ezein arrazoi dela medio, dela pertsonaren joera sexuala, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, aniztasun funtzionala, ezta beste ezein ezaugarri pertsonal nahi sozialengatik ere.

c) Behar diren neurriak hartuko ditu beren inguruabar pertsonal eta sozialen kausaz arreta integrala iristeko zailtasun gehiago dituzten biktimen eskubideak bete daitezzen, bereziki aniztasun funtzionala duten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein izanik ere beren egoera administratiboa. Lagundu egingo zaie indarkeria pairatzen duten emakumeei autonomia pertsonala lortzen eta bizimodu normaldua izaten.

d) Adingabeen interesen defentsa bermatuko da.

e) Bermatuko da azkar eta malgu arituko dela, kasuek eskatzen duten erantzuna ahalik eta azkarrena izan dadin.

f) Eginahalean saihestuko da bigarren mailako biktimizazioa, ahalik eta gehien gutxituz indarkeria sexista pairatutako emakumeek profesional eta erakundeekin dituzten harremanen ondorioz izan ditzaketen eragozpenak.

3. Zarauzko Udalak "Tratu txarrak eta genero indarkeria jasaten dituzten emakumeei lagundu eta arreta emateko erakundeen arteko Jarduera-protokoloa" indarrean edukiko du uneoro, eta berrikusi, eguneratu eta hobetuko du Emakundek indarrean duen Instituzioen arteko akordioari jarraiki.

Parekidetasun departamentuak protokoloa sustatu eta koordinatuko du eta esku-hartzea eta arreta hobetzeko proposamenak egingo ditu. Eta indarkeria jasan duten emakumeen ahalduntze prozesua sustatzeko jarduerak eta zerbitzuak sustatu eta gauzatuko ditu.

4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren detekzioa, arreta koordinazioa, babesa eta erraparaziorako ezinbesteko baliabideak dira Zarauzko Emakumeen* Etxea eta Jabetze Eskola. Horregatik, funtzio hauek behar bezala garatzen jarraitzeko, beharrezko baliabideak bermatuko zaizkio.

V. KAPITULUA: Salaketa soziala

67. artikulua. Aldarri eta ekintza publikoak.

1. Zarauzko Udalak, bere eguneroko lan eta ekintzetan, baita bere ordezkarien –politikoen nola teknikoen- adierazpen eta agerpen publiko guztietan ere, argi eta garbi agertuko du indarkeria sexistarekiko bere arbuioa.

2. Zarauzko Udalak indarkeria sexistaren aurkako erantzun instituzionaleko udal-protokolo bat prestatuko du non jasoko diren jarraitu beharreko pautak aldarri publikoak egitean eta hautetsien adierazpenetan, baita nola bideratu behar diren komunikabideekiko harremanak eta zein diren sexu-indarkeriaren inguruko ekintza publikoetarako hartutako konpromisoak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arauaren jarraipena eta ebaluazioa

Zarauzko Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal-ordenantzaren segimendua eta ebaluazio txostena egingo du Berdintasun Planaren ebaluazio urtean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Genero-eragina

Genero-eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aplikatzea. 2017 urtearen aurretik onartuta dauden ordenantzen eta administrazio-egintzen proiektuei ez zaie egin beharko Ordenantza honetan ezarritako genero-eraginaren aldez aurreko ebaluaketa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetzea

Indargabetuta gelditzen da, 2017ko maiatzaren 17an Zarauzko Udalbatzak onartutako (GAO 156) Emakume eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantza, baita honen aurka egiten duten maila bereko edo apalagoko gainerako arau guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Argitaratu eta indarrean jartzea.

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita 15 egun baliodun igaro ostean sartuko da indarrean (TAOAL, 70.2 eta 65.2 artikulua).